

DONEZTEBEKO FERIAK

Ailegatu da udazkena. Horitu dira zuhaitzak, erori dira gaztainak arboletatik, atera dira onddo bakar batzuk mendi bazterretan eta piztu da tximinietako lehen sua. Udazken giroa nabaria da karriketetan, eta horrekin batera, baita feria usaina ere. Udazkena feria garaia baita gurean. Elizondokoa izan zen lehen feria, urriaren 25ean eta 26an, eta lekukoa

hartzen hurrena izanen da Doneztebekoa. Azaroaren 15ean, ortziralea, urteroko feria ospatuko dute bertan.

Urtero bezala, jendez beteko dira Doneztebeko karririkak. Aunitz izanen dira eskualdetik zein inguruko herrietatik bertaratuko direnak, eta seguru giro ederra izanen dela. Egitarau zabala antolatu du Doneztebeko Udalak horretarako.



CTV
 ONGI PASA FERIAK
 Rosa Seminario, 15 DONEZTEBE
 T. 948 450 591 M. 659 884 374
 ctveterinario@telefonica.net
www.veterinariaostiz.com

ARIZTIGAIN
 CAMPING · KAMPINA
 RESTAURANTE · JATETXEA
 ★★★

Plater konbinatuak | Menua | Hamburgesak | Sandwichak |
 Pintxoak | Kaxulak | Bokatak

info@campingariztigail.com | www.campingariztigail.com
 T. 948 450 540 M. 660 798 249 M. 636 488 300 SUNBILLA

EDERKI tailerra

CITROËN
 CITRÖEN
 ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
 PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea 57 · DONEZTEBE · 948 450 525

Aziendak eta herri kirolak izanen dira eguneko protagonistak

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

ONGI PASA FERIAK!

24 ORDUKO ZERBITZUA

BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN

TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN

SUPERMERKATUKO PREZIOAK



Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE
T. 948 450 272 · 948 450 787

Urteko egunik inportanteenetakoa izaten da udazkeneko feria eguna doneztebar aunitzentzat zein kanpotik joaten diren bisitariarentzat. San Martin egunetik, azaroaren 11, hurbilen dagoen ortziralean izaten da, azaroaren 15ean, aurten. Goizeko lehen ordutik hasita zer ikusi, zer dastatu eta zer egin izanen da Donezteben.

Goizeko lehen orduan baserritik herrirako bidea eginen dute aziendek, eta horiek ikusteko aukera izanen da Merkatu Plazan eta inguruetan, 10:00etan hasi eta 14ak arte, guti goiti-beheiti. Inguruko baserrietako abelbururik ederrenak ikusteko aukera izanen da baina, ohikoa den

gisan, ez da lehiaketarik eginen, erakusketa bakarrik izanen da.

Abelburuez gain, baserri lanetarako makinaria berriaren erakusketa ere izanen da tenore berean Bordaxo inguruko aparkalekuan.

Salgaiak herrigunean

Herriguneko karriketetan, aldiz, salgaiak erosteko aukera izanen da egun osoan. Alde batetik Doneztebeko merkatariek beren produktuak dendatik atera eta karriketetan paratuko dituzte. Herriko merkatariez gain, kanpotik etorritako saltzaileak ere izanen dira Donezteben.

Jatekoak zein bertzelako produktuak erosteko aukera izanen da:



Sampi Aragón S.L.

ONGI PASA FERIAK!



T. 948 450 354 | DONEZTEBE • sampiaragon@sampiaragon.com • www.arincar.com



arropak, aterkiak, zapatilak, etxera-ko objektuak, eztiak, gasna, postreak...

Estimu handia izaten duten taloak dastatzen ahalko dira eta ikasleek postuak paratuko dituzte ikasbida-raiako dirua lortzeko. Iaz bezala, aurten ere Lapaitza Gazte Asanbladak Herrigunean ostatua paratuko du eta egun osorako egitarau zabal- la prestatu dute. Azken urteetan Erreka Guraso Elkarteak postua paratu izan du baina, lerro hauek

idaztean, oraindik zalantzan zeuden aurten paratuko ote zuten edo ez.

Goizeko erosketen ondotik, inguru-ko ostatuek feria egunean hain estimatua duen otordua eskainiko dute: garbantzuak, gisatua, usoa saltsan....

Herri kirolak arratsaldean

Arratsaldean, aldiz, azken urteetan bezala herri kirolak izan dira prota- gonista Ezkurra pilotalekuan. Nafa-



Ongi pasa feriak!

Doneztebe/antzesteko Udala

PINTURA eta DEKORAZIOA
BIDASOA
 Kalitatea, azkartasuna eta bermea
 Lan mota guztiak egiten ditugu

Tel.: 619 88 97 23 · Malerreka, Baztan eta Bortziriak

TALLERES ELIZGOYEN
 Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

Mekanika azkarra
 Multimarka diagnostia
 Injekzioa
 Gasolioa
 Direkzioa
 Balaztak eta ABS
 Elektronika
 Aire girotua
 IAT aurreko azterketa
 Esekidura
 Txapa eta pintura

MULTIMARKA TAILERRA

Leitzako bidea, 78 – Doneztebe | 948450158
 elizgoyen@telefonica.net

TITI BAR
DONEZTEBE

Amezitia 7, Doneztebe
 Tel. 948 450 271

— ONGI PASA FERIAK! —

Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!

608 676 221
 948 450 084
 DONEZTEBE

CS
SALDIAS
 HARATEGIA
 "Elikagai naturalekin etxean hazitako aretxeen haragia. Etxeko txistorra"
 Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE

Belarra jatetxea **ONGI PASA FERIAKI**

 Ameztia zeharkarrika, 3 • 31740 DONEZTEBE
 T. 948 450 306 • www.restaurantebelarra.com

STIHL
DENA. BATERIAREKIN.
2024KO UDAZKENEKO ESKAINTZAK
JOSÉ LUIS SAN MIGUEL
 MERKATARIEN ZEHARKARRIKA, 11
 31740 DONEZTEBE
948 450 711

rroako Lehenengo Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatuko dute bertan, 18:00etan hasita, eta azken urteetako ohitura betetzen bada, frontoia goraino beteko da. Sarrerek 15 euroko prezioa izanen dute eta han bertan erosten ahalko dira.

Lekunberrin jokatu zuten finale-rako kanporaketa urriaren 13an, eta borts lagunek lortu zuten final preziatu-rako txartela: Iker Vicentek, Txomin Amundarainek, Joxean Etxeberriak, Ibai Soroak eta Jon Rekondok. Borts kirolari horiek ariko dira lehian, beraz Ezkurra frontoian.

Iaz bederatzigarren aldiz lortu zuen Nafarroako txapel preziatua Vicentek eta hamargarrena defendatzeko plazaratuko da aurten. Gainera, hamargarren irabaziko balu, Mikel Mindegia aizkolari haundiaren marka hautsiko luke otsagabiarrak. Vicenterekin batera lehiatuko diren aizkolarietatik bi dira eskualdekoak: Joxean Etxeberria zigatarra eta Jon Rekondo leitzarra.

Honakoa izanen da finalean aizkolariek osatu beharko duten lana: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta



bi oinbiko. Aizkolariez gain, jaialdia osatzeko harri jasotzaileak ere ariko dira. Estefi Etxebeste iturendarrak eta Garazi Ansa oiartzuarrak egingen dute erakustaldia.

Herri kirolak bukatuta, bestak segituko du goizaldeko ordu txikiak arte, eta bestarako gogoz denak non dantzatua eta gozatua izanen du Donezteben.



MENDAUR MOTOR
T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD
 Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333
ongi pasa feriak!

«Besta eredu feminista, euskalduna eta segurua sortu nahi dugu»

LAPAITZA BERTIZANARAKO ETA MALERREKAKO ASANBLADA



Aurten bigarren aldiz Doneztebeko feria egunean ostatua paratuko du Lapaitza Malerrekako eta Bertizaranako Gazte Asanbladak Herrigunean. Besta eredu alternatibo bat sustatu nahi dute horrela, eta baita jendea gazte asanbladara hurbiltzea ere. Lapaitzako kideek kontatu dutenez, «gure herrietan dugun besta ereduari buelta bat eman eta bertze eredu bat sortu eta eskaini nahi dugu, euskalduna eta feminista izanen dena, denok tokia izanen dugun besta bat eta denok goza dezakeguna».

Bide horretan, Herriguneko eremua «besta gune segurua izatea» nahi dute eta horretarako lan eginen dutela nabarmendu dute: «Pertsona

guztiak errespetatuak izanen diren eremua izatea nahi dugu. Horregatik argi utzi nahi dugu ez direla jarrera guztiak onetsiko, ez dugula erasorik onartuko, eta horretarako protokolo bat ezarriko dugula».

lazko balorazio positiboa

Iazko arrakastaren ondotik hartu dute Lapaitzako kideek aurten ere Herrigunea besta eremu bihurtzeko erabakia. «Balorazio hagitz positiboa egin genuen. Egitaraua bere osotasunean bete zen, ez genuen inolako arazorik izan, eta jende dezente bildu zen». Gainera eguneko ekitaldiez gain, arratsean izandako arrakastak ere animatu ditu aurten ere egitaraua

ongi pasa feriak!

goldea
tallerra s.l.l.

Makal eta bertze lanerako makinarri eta lanaberen salmenta eta konponaketa

tel./fax: 948 450 060
e-mail: goldeatallerra@gmail.com
Pol. Industrial Aparan. 3
31740 Doneztebe (Nafarroa)

Arozena
ostatu - jatetxea

ongi pasa feriak!
T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DNEZTEBE

asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

| | |
|-----------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|
| Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 | Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 |
| Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108 | Eltzeta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 077 |

erran.
eus

GARBI

ORDUBETE BAINO GUTXIAGOAN EDOZEIN ARROPA MODU ERRAZEAN GARBITU ETA IDORTU!

AUTOZERBITZU GARBITEGIA DIRUA ETA DENBORA AURREZTU!

Eguneroko arropa, mantak, edredoak, nordikoak...

🕒 Urteko 365 egunak 08:00 - 22:00

633 424 263 LEITZAKO BIDEA, 29 DONEZTEBE

ARROPA GARBITU eta DESINFEKTATU ERAGINKORTASUN eta KALITATE HANDIENAREKIN

XABOIA OXIGENO AKTIBO LEUNGARRIA BARNE

EROSKI city

ongi pasa feriak!!

T. 948 456 152
Zazpigurutze, 8 · DONEZTEBE



ELOR TXURI
JATEKHA

Gosari eta bazkariak

678 49 44 62
elortxurirestaurante.com
elortxurirestaurante@gmail.com

IRRENTZA

LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!
ONGI PASA INAUTERIAK!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

OSTATUA

Maitte moda

Feria egunean eskainitza bereziak

-Emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak-

maite.moda Maitte Moda 948 450 727

Amezti zaharkarrika, 5 DONEZTEBE



antolatza, izan ere, iaz arratseko bestan lortu zuten «bilatzen dugun eredu alternatiboa betetzea».

Malerrekan horrelako espazio bat irekitzea «aurrerapauso» handitzat dute Lapaitzakoe. «Asanbladatik kanpoko jendea arunt eskertua azaldu zen iaz irekitzeagatik, eta horrek errepikatze gogo haunditu digu», azpimarratu dute.

Egitarau zabala

Feria giroa Herrigunera zabaltzeko ahalegina egingen dute aurten ere. Horretarako egitarau zabala osatu dute Lapaitzakoe. 09:30etik aitzinera bigarren eskuko eta herri mugimenduko gauzen azoka paratuko dute, eta gosaltzeko aukera ere izanen da. Ondotik, eguerdian bermut musikatu egingen dute, eta bazkalduran, feria egunean hain ohikoa izaten den bazkaria egingen dute.

Bazkari autogestionatua izanen da, herritar denei irekita. Horretarako, bakoitzak elkarbanatzeko zerbait eraman beharko du, eta denen janaria elkartuta osatuko dute otordua. Ilunabarrean, aldiz, musikaren

txanda izanen da, 19:00ak aldean hasita kontzertuak izanen dira. Iruñerriko Gezurra taldea izanen da jotzen lehena, eta ondotik Lapurdiko Kode taldeak hartuko dio lekukoa. Afaltzeko aukera izanen da eta, arratsa borobiltzeko, Fifi ta Fefa eta DJ Sor-Presa izanen dira.

Besta eta lana, biak batera

Lapaitzak antolatzen duenez, eta laneko manera asanblearioa dutenez, feria egunerako egitaraua ere manera berean antolatu dute. «Egitaraua joan den urtean ongi atera zenez, aurten errazago egin zaigu osatzea egitura berdina segitu baitugu». Hala ere argi diote, «beti ideia berrietara irekita gaude eta denon artean bilatzen dugu adostasuna».

Egitaraua osatuta, lanerako ere txandaka antolatzen direla kontatu dute: «Lan dezente egin behar da eta hainbat txanda ditugu ostatua prestatzeko, gaueko ogitartekoak egiteko eta barran zerbitzatzeko adibidez». Txanda horiek gazteak asanbladara hurbiltzeko aukera gisa ikusten dituzte, «asanbladaren martxa hartze-



Lithium-Ion

Espezialistak eremu guztietan profesionaletik profesionalera!

STIHL

AGRICOLA BIDASOA Lorezaintza eta nekazaritza makinena salmenta eta konponketa
Auzolan, 16 – Irun – 943 627 331 – agribidasoa@gmail.com

ko eta giro ona sortzeko gure artean». Ostatuan lortutako dirua Malerre-kako eta Bertizaranako gazteria ber-pizteko eta eskualdeko eskaintza zabaltzeko erabiliko dituzte.

Gaztetxea aldarri

Azken hilabeteak feria antolatzen eman badituzte ere, bertzelakoetan ere aritu dira, Lesakan egin zuten Sorgin Gaua antolatzen eta Palesti-naren aldeko elkarretaratzea anto-latzen, bertzeak bertze. Hala ere, gaur egun, barrenera begirako lanean ari direla azaldu dute: «asanbladaren funtzionamendua fintzen, eta etor-kizunera begira helburua zehatzak zehazten ari gara, baita hainbat hausnarketa egiten ere, adibidez jende berria gurera atxikitzeko».

Asanblada sortu zutenetik izanda-ko aldarrikapen nagusienetako bat da Malerrekak eta Bertizaranak Gaz-tetxe baten beharra daukatela. «Au-nitzetan ez dugu gure egunerokoan bizitzen ditugun zailtasunak eta zapalkuntzak elkarbanatzeko eta problematizatzeko aukerarik eta espaziorik ere. Espazio hori modu

anitzetan irudikatu daiteke, baina gaztetxearen forma hartu behar duela uste dugu guk». Gaztetxeari bertze funtzio batzuk ere aitor-tzen dizkiote, aisialdi alternatiboa gar-tzeko gune izatea, sormenarentzat leku libreza izatea, elkar ezagutza sustatzeko espazioa izatea eta es-

«HERRIGUNEAN FERIA GIROA IZATEKO EGITARAUA PRESTATU DUGU»

kualdeko eragileen lanketa garatze-ko espazioa izatea bertzeak bertze.

Feria egunean gazteak elkartzeko lekua izanen da Herrigunea, beraz. Antolatutako egitarauan parte har-tzera eta txandak egitera gonbidatu dituzte Lapaitzakoek eskualdeko gazteak: «Uste dugu giro arrunt po-lita lortu dugula aurten ere eta denek gozatzeko lan pixka bat ere egin beharko dugula».



Bilan NEKAZAL TRESNAK

948 92 40 17 info@bilanagricola.com
680 218 811 Kale nagusia 19, 31747 Saldias



Ongi pasa feriak!

MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita

609 446 693 - 679 204 872
bidasoa@neumaticosbidasoa.es
www.neumaticosbidasoa.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa feriak!

Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872




